



Ayuntamiento de  
**Pamplona** | **Iruñeko**  
Udala

T. 948 420 100 / 010  
www.pamplona.es

ÁREA DE EDUCACIÓN, PARTICIPACIÓN  
CIUDADANA Y JUVENTUD  
Participacion Ciudadana

HEZKUNTZA, HERRITARREN  
PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO ALORRA  
Herritarren Partaidetza

# **GAZTEDIAREN MAHAIA PARTAIDETZA-ORGANO SEKTORIALAREN BERARIAZKO FUNTZIONAMENDU- ARAUDIAREN PROIEKTUA**



## Edukia

### ZIOEN AZALPENEA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.....	4
1. artikulua. Xedea eta izaera .....	4
II. KAPITULUA. EGINKIZUNAK .....	5
2. artikulua. Eginkizunak.....	5
3. artikulua. Eskumeneko gaiak .....	6
4. artikulua. Jarduketa-esparrua .....	6
III. KAPITULUA. OSAERA, HAUTATZE-ARAUAK ETA KARGU-UZTEA .....	6
5. artikulua. Osaera .....	6
6. artikulua. Gazteriaren Mahaiko kideen eskubideak eta betebeharrak .....	8
7. artikulua. Lehendakaritzaren eginkizunak .....	9
8. artikulua. Idazkaritzaren eginkizunak .....	9
9. artikulua. Gazteriaren Mahaiko batzordekideen eginkizunak .....	9
10. artikulua. Izendapena eta kargu-uztea .....	10
11. artikulua. Iraupena .....	11
IV. KAPITULUA. FUNTZIONAMENDUA.....	11
12. artikulua. Saioen tokia eta aldizkakotasuna .....	11
13. artikulua. Dei egitea .....	11
14. artikulua. Gai-zerrenda .....	12
15. artikulua. Ordain gabea .....	12
16. artikulua. Gazteriaren Mahaiari babesa emateko baliabideak .....	12
17. artikulua. Erabakiak hartzea .....	13
V. KAPITULUA. ARAUAK ETA HAIEN ALDAKETA .....	13
18. artikulua. Ordezko arauak .....	13
19. artikulua. Araudi honen aldaketa .....	13
LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA .....	14
XEDAPEN INDARGABETZAILEA .....	14
AZKEN XEDAPENA .....	14



## GAZTERIAREN MAHAIAREN FUNTZIONAMENDUKO ERREGELAMENDUA

### ZIOEN AZALPENA

-I-

2019ko abenduaren 24an onetsi eta 2020ko urtarrilaren 11n indarrean sartu zen Iruñeko Udalaren Partaidetzarako Erregelamenduak, besteak beste honako hauek arautzen ditu: Iruñeko herritarrek udal-bizitzan eta -kudeaketan parte-hartzeko moduak, baliabideak eta prozedurak, hala banaka nola elkarteen, taldeen eta entitateen bitartez parte har dezaten.

II: tituluak herritarren partaidetzako organoak eratzeko eta garatzeko prozedurak ezartzen ditu. Guztiek partekatzen dituzten hainbat gai komunak azalpena eman ondoren, dauden organismoen izaera juridikoa, helburuak, eginkizunak eta osaera zein egitura zehazten ditu, hau da, hauena: Hirigunea-Hiriko Gizarte Kontseilua, Auzoguneak-Lurraldeko Partaidetza Organoak, Elkarguneak-Sektoreko Partaidetza Organoak, eta, azkenik, Behatokiak eta Demokrazia Parte-hartzailearen Tokiko Behatokia arautzen ditu.

Bestalde, Xedapen Gehigarrian ezartzen du indarrean sartzerakoan jada badauden partaidetza-organoek beren eginkizunak betetzen jarraituko dutela, indarrean dituzten funtzionamendu-arauen arabera, eta, aldatzen badira, erregelamendu horretako xedapenetara egokitu beharra dutela.

Partaidetzarako Erregelamenduaren 5. artikulua zera ezartzen du: "Osoko Bilkurari dagokio partaidetza-organoak eta haien funtzionamendu-erregelamenduak sortzea", bai eta "organoa sortzeko akordioak eta Herritarren Partaidetzarako Organoaren Funtzionamenduko Erregelamendu Espezifikokoak honako hauek arautuko dituztela, beste batzuen artean:

- a) Bere izendapena partaidetzarako organo gisa, erregelamendu honek arautzen dituen tipologiaen arabera.
- b) Bere jarduera-eremua eta -xedea.
- c) Bere jomuga edo helburuak.
- d) Zer plan, proiektu, zerbitzu edo udal-jarduketaren gainean esku hartuko duen.
- e) Administrazioan nola txertatuko den edo zer mendekotasun hierarkiko izanen duen.



- f) Partaidetzarako organoaren osaera, kideen eskubideak, betebeharrak eta ditzuten eginkizun espezifikoak.
- g) Oinarrizko funtzionamendu-arauak: dei egiteak, egitura, bilkurak egitea, erabakiak zer eratan hartuko diren, txostenak nola emanen diren eta formulatzen zaizkion kontsultei buruzko iritzia.
- h) Partaidetzarako organoaren iraupena.
- i) Hura desegiteko zergatiak eta modua.
- j) Beren jarduerak eta eskumenak gauzatzeko eskura dauden baliabideak".

Hori dena ezertan eragotzi gabe artikulua honen 4. puntuan ezartzen dena: "partaidetzarako organoek beren barne-jarduerako irizpide propioak onar ditzakete, Udalaren Osoko Bilkuran onartutako Partaidetzarako Erregelamenduaren eta Herritarren Partaidetzarako Organoen Funtzionamenduko Erregelamendu Espezifikoaren osagarriak izan direnak".

Hori horrela, Gazteriaren Mahiaren funtzionamendu-araudi honek aipatu atal horiek betetzen ditu eta bost kapitulutan banatutako 19 artikulua ditu.

Horietako lehenak Xedapen Orokorrak jasotzen ditu, administrazio-organoaren xedeari eta izaerari dagozkienak. Bigarrenean, eginkizunak, eskumeneko gaiak eta jarduketak-esparrua hartzen dira hizpide. Hirugarren kapituluak, bestalde, osaera, izendapena, kargu-uztea eta karguen iraupena jasotzen ditu. Laugarren kapituluak funtzionamenduari heltzen dio. Bosgarren kapituluak ordezkio arauak jasotzen ditu. Azkenik, Xedapen Gehigarri batek, Xedapen Indargabetzaile batek eta Azken Xedapen batek buru ematen diote Araudiari.

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### **1. artikulua. Xedea eta izaera**

Gazteriaren Mahaia Elkargunea-Sektoreko Partaidetza Organoa da, Iruñeko Udalaren Partaidetzarako erregelamenduekin bat eratua, eta xede dauka hiriko gazteekin zerikusia duten udal-gaien kudeaketan partaidetza bideratu, erraztu eta sustatzea.

Bere xede nagusia Iruñeko gazteek hiriko bizitzan parte har dezaten sustatzea da, bai eta hiriko gazte-sektorea osatzen duten eragileen eta entitateen artean udal-politikak elkarrekin sortzea, haien gaineko gogoeta eta azterketa sustatzea ere.



Hona Mahaiaren helburu nagusiak: modua eta mekanismoak aztertzea gazteek parte har dezaten ukitzen dituzten udal-gaietan, betiere genero-ikuspegia txertaturik; gazteak Udalaren gazteria-politiken partaide egitea, norabide askotako topaketa eta elkarrizketa gune bat sortzea Udal Administrazioaren, gazte-elkarteen eta gazte jendearen artean, eta gunea neutrala, anitza eta Iruñeko gazte guztiendako eskuragarri izan dadila, kontuan hartu gabe haien jatorria, ideiak eta iritziak, generoa, sexu-orientazioa, desgaitasuna eta abar.

Gazteriaren Mahaiak bere egiten du zeharkakotasun-printzipioa, bere eginkizunen ardatz egituratzaile gisara, eta horrek berekin dakar gazte gisara tradizioz hertsiki identifikatu denaz haratagoko gazteria-konzeptua bere gain hartzea eta, ondorioz, gaztetasuna halako esparru zabal, konplexu eta ez-mugatutzat hartzea, non gazteen bizitza-proiektuetan eragina eduki dezakeen edozein gai tokia baitauka.

Gazteriaren Mahaia Iruñeko gazteen inguruko gaiak kudeatzen dituen udal-alorrari atxikiko zaio.

## **II. KAPITULUA EGINKIZUNAK**

### **2. artikulua. Eginkizunak**

Hona Gazteriaren Mahaiaren eginkizunak, oro har: txostenak, analisiak, azterlanak, proposamenak eta koprodukzioak egitea, gazteriarekin lotura duten jarduketa eta arloetan.

Halaber, Herritarren Partaidetza arautzen duen Iruñeko Udalaren erregelamenduaren 20. artikuluekin bat, honako hauek dira Gazteriaren Mahaiaren eginkizunak, zerrendaturik eta modu ez-mugatzailean:

- a) Iruñeko gazteen eta horien antolaketa-erakundeen zuzeneko parte-hartze deszentralizatu sustatzea eta, horretarako, behar diren mekanismoak ezartzea, jarduera horien gaineko informazioa eman, bultzatu eta jarraipena egin ahal izateko.
- b) Herritarrek Gazteriaren eremuko udal-zerbitzuen eta jarduketan funtzionamenduari buruz egindako proposamenak biltzea.
- c) Udaleko gobernu-organoei gazteriako udal-zerbitzuen funtzionamenduari buruzko informazioa ematea eta proposamenak egitea, hobeto funtzionatu dezaten.



- d) Udalari, urtero, gazteen beharrianen egoera aurkeztea, sexuaren arabera bereizita eta lehentasunak hautatu eta adierazita.
- e) Udalaren Osoko Bilkurari edo Batzordeari komenigarritzat jotzen diren gaiak proposatzea eta parte hartzea haiek defendatzeko. Ez da sartuko afera bat baino gehiago bilkura edo batzorde bakoitzeko.
- f) Gazteria ukitzen duten udal-plan estrategikoen elementuak aztertzea.
- g) Ahalik eta informazio eta publizitate handiena ematea Gazteria-arloko udal-jarduera eta -erabakiei buruz.
- h) Udalarekin lankidetzan aritzea gazteen arazoei eta beharrei irtenbidea bilatzeko, eta gazteria-eremuko politikak aplikatzeko.
- i) Asoziazionismoa, herritarren partaidetza eta erakundeen arteko lankidetzak sustatzea, gazte-sektorean jarduten duten instituzio edo erakundeen arteko koordinazioa indartuz, erakunde horiek publikoak nahiz pribatuak izan.
- j) Informazioa biltzea, aurrez eskatuta, Gazteriaren Mahaiarentzat interesekoak izan daitezkeen gaiei buruz.
- k) Gazteak Hirigune-Hiriko Gizarte Kontseiluan ordezkatzeko.

### **3. artikulua. Eskumeneko gaiak**

Gazteriaren Mahaiak, Iruñeko Udalaren Partaidetzarako Erregelamenduaren 20. artikuluekin bat, kontsultak jasoko ditu, modu ez-mugatzailean iritzia emateko, honako gai hauetaz:

- a) Gazteriaren Mahaiari dagozkion gaiak jorratzen dituzten Ordenantzak, Erregelamenduak edo udal-araudia sortzea edo aldatzea.
- b) Gazteriaren Mahaiaren esparruari eragiten dion edozein udal-gai garrantzitsu.

### **4. artikulua. Jarduteko esparrua**

Jarduketa-eremua Iruñeko udal-barrutia izanen da. Halaber, Gazteriaren Mahaiak beste entitate eta erakundeekiko lankidetzak sustatuko du, bere eskumeneko gaietan, lanaren eta gogoetaren bidez.

## **III. KAPITULUA**

### **OSAERA, HAUTATZE-ARAUAK ETA KARGU-UZTEA**



## 5. artikulua. Osaera

Gazteriaren Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Zuzendaritza-taldea (4 kide):

- **Lehendakaritza.** Kargu hau alkateak beteko du, edo hark eskuordetutako zinegotziak.
- **Lehendakariordetza.** Lehendakariordea Mahaiaren partaide diren 14 eta 30 urte arteko herritar ordezkariak hautatuko dute Mahaia eratzeko bilkuran.
- **Idazkaritza.** Osoko Bilkurako Idazkari Nagusiaren edo hark eskuordetzen duen udal-teknikariaren ardura izanen da.
- Udalaren gazteria-politikak zein udal-alorri atxiki eta horren zuzendaritza.

Teknikarien taldea (2 kide)

- Gazteriako udal-teknikari bat.
- Gaztediaren Etxeko zuzendaria.

Politikoen taldea (aldakorra Osoko Bilkuraren osaeraren arabera).

- Osoko Bilkuran ordezkariak duten udal-taldeak ordezkari bana.

Erakunde taldea (2 kide)

- Nafarroako Gazteriaren Institutuko ordezkari bat
- Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko ordezkari bat

Herritar antolatuen taldea (14 eta 30 urte bitartekoak)

- Bi unibertsitateetako ordezkari bana (NUP eta Nafarroako Unibertsitatea)
- Hezkuntza-aisialdiko 2 ordezkari (scout taldeak eta abar)
- Ikastetxe nagusietako 2 ordezkari
- Gizarte-esparruko 2 ordezkari
- Ekonomia-esparruan, enpresaburu gazteen ordezkari 1 eta Nafarroako bi sindikatu garrantzitsuenetako ordezkari bana
- Gaztediaren Etxeko 2 berriemaile
- Osoko Bilkuran ordezkariak duten alderdietako gazte-atalen ordezkari bana
- Genero-berdintasunaren esparruko kide 1
- LGTBI esparruko kide 1
- Aniztasunaren esparruan, migrazio-esparruko ordezkari 1 eta desgaitasun-esparruko beste 1
- Beste zenbait esparrutako 2 ordezkari: kultura, kirola, aisialdi eta denbora libreko eskolak, etab.

Herritar aktiboen taldea



- 14 eta 30 urte bitarteko 4 lagun, herritar aktiboen udal-erregistroan izen emanak, gazteriaren gaietan bereziki interesaturik eta boluntarioki Mahaiko kideak izan nahi dutenak

Halaber, Lehendakariak hala eskaturik, bilkuran eztabaidatu beharreko gaietan adituak diren pertsonak ere bertaratu daitezke Gazteriaren Mahaira, aholkulari gisara, hitzarekin baina botorik gabe.

Genero aldetik, saiatuko da ordezkarien izendapenak orekatuak izatea, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen 4.1. artikuluekin bat.

## **6. artikulua. Gazteriaren Mahaiko kideen eskubideak eta betebeharrak**

### **Eskubideak:**

Gazteriaren Mahaia osatzen duten kideek honako eskubide hauek edukiko dituzte:

- Mahaiak egiten dituen osoko bilkura guztietara deituak izatea, eta gonbita jasotzea gai jakin batzuk lantzeko deitzen diren talde eta batzordeetan parte hartzeko.
- Haien ustez eta arrazoiturik Mahaian jorratu beharreko gaiak bilkuren gai-zerrendan sartzeko proposatzea.
- Deituak izan diren bilkuren gai-zerrendako dokumentazioa edukitzea, gutxienez bilkura baino astebete lehenago.
- Bilkuretan parte hartzea, ahoz edo idatziz.
- Botoa emateko eskubidea gauzatzea, araudi honek berariaz aitortzen dien kasuetan.
- Jakitera ematea, ahoz edo idatziz, Gazteriaren Mahaiak hartutako erabakien aldeko edo kontrako jarrera, araudi honek botoa emateko eskubidea berariaz aitortzen ez dienean.

### **Betebeharrak:**

Gazteriaren Mahaia osatzen dutenek, bestalde, honako betebeharrak hauek edukiko dituzte:

- Deituak izan diren osoko bilkura, talde edo batzorde guztietara bertaratzea.
- Mahaiaren Lehendakaritzara idatziz eta arrazoiturik igortzea proposamena, heldu beharreko gaiak proposatzekotan.
- Lan-saioetako gai-zerrendari buruz igortzen dieten dokumentazioa aztertzea.
- Mahaiak bozketa bidez hartutako erabakiak errespetatzea eta haiei men egitea.





Hiru bilkuretara jarraian huts eginez gero, justifikatutako ziorik gabe, Mahaitik banantzea eta gero ordeztea ekarriko du.

Mahairako hautatuak izan direnak kargugabetuak eta ordeztuak izan daitezke izendapena egiteko prozesuari jarraituta.

### **7. artikulua. Lehendakaritzaren eginkizunak**

Lehendakaritzari, zeina alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak beteko baitu, honako eginkizun hauek dagozkio:

- Bilkuretarako deia egin, haietan buru izan eta amaitutzat ematea, eta eztabaidak moderatzea.
- Berdinketak haustea bere botoarekin.
- Gonbidapen iraunkorrak onestea eta errefusatzea eta unean-unean gonbidapenak egitea.
- Mahaiaren legezko ordezkaritza.
- Karguari berez dagozkion zereginak.

### **8. artikulua. Idazkaritzaren eginkizunak**

Idazkaritzak, zeina Osoko Bilkurako Idazkari Nagusiari edo hark eskuordetzen duen udal-teknikariari baitagokio, honako eginkizun hauek ditu:

- Bilkuren akta egitea.
- Mahaiaren erabakiak betearaztea.
- Mahaiaren Idazkaritzari berez dagozkionak.

### **9. artikulua. Gazteriaren Mahaiko batzordekideen eginkizunak**

Gazteriaren Mahaiko batzordekideei honako eginkizunak eta eskumenak garatzea dagokie:

- Eztabaidetan parte hartzea eta Mahaiaren xede eta eginkizunei lotutako proposamenak egitea.
- Eratzen diren lan-taldeetan parte hartzea.
- Botoa emateko eskubidea gauzatzea, hala aitortu zaien kasuetan, bai eta abstentzioa edo boto partikularra aktan jasoaraztekoa.



- Beren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren argibideak eskuratzea. Hori horrela, idatziz eskatzen ahalko diote Mahaiaren Idazkaritzari dagokion dokumentazioa.
- Egindako jarduketei eta hobekuntza-proposamenei buruzko urteko memoria egiten laguntzea.
- Batzordekide izateari dagozkion gainerako eginkizunak.
- Galde-eskeak egitea.

### **10. artikulua. Izendapena eta kargu-uztea**

Dagokion udal-organoak izendatu eta kargutik kenduko ditu Gazteriaren Mahaiko batzordekideak, horiek ordezkatzeko ari diren entitateen proposamenari jarraituz. Izan ere, entitateek batzordekideak izendatzeaz gain haien ordezkoak ere proposatu beharko dituzte.

Batzordekideen izendapena balekoa izateko proposatuek aurrez onartu beharko dute hori. Nolanahi ere, ordezkaritza duen entitate bakoitzak ordezkoak izendatzen ahalko ditu, eta horiek bilkuretara joan daitezke, titularraren hutsune, ez-egote edo gaixotasunaren kasuan, horretarako idatzizko eskuordetza aurkeztuta.

Batzordekideen kargu-uztea honako kasu hauetan gertatuko da:

- Heriotza edo desgaitasun bat-batekoa.
- Agintaldiaren amaiera.
- Ordezkatzen duten erakundeak edo entitateak eskatuta.
- Lehendakaritzak onartutako uko-egitea.
- Lehendakaritzak Mahaiaren kide gehienek proposaturik hartutako erabakia, jarraian hiru bilkuretara huts egiten badute justifikaziorik gabe edo karguari dagozkion eginkizunak bete ezean.
- Hautatua izan diren unean kide zireneko organo edo administrazioako kidea izateari uztea.
- Hautatuak izan ziren unean kide zireneko elkarte, entitatea edo organismoa deuseztatzea.
- Kide diren elkarteak baja hartzea Iruñeko Udalaren elkarteen erroldatik.

Agintaldia amaitzeaz besteko zioengatik sortutako hutsune guztiak ordezkoek beteko dituzte. Ordezkoek batzordekideen aldi berean amaituko dute bere kargu-aldia.



## **11. artikulua. Iraupena**

Herritarren eta erakundeen ordezkarien txandakatzea bermatzeko, karguak lau urtetik behin berrituko dira, Udalbatzaren aldaketarekin batera. Kideek gehienez jarraian zortzi urtera bitarte errepikatzen ahalko dute.

## **IV. KAPITULUA FUNTZIONAMENDUA**

### **12. artikulua. Saioen tokia eta aldizkakotasuna**

Gazteriaren Mahaia lauhileko bakoitzeko lehen hilabeteko (urtarril, maiatz eta irailean) hirugarren asteazkenean bilduko da ohiko bilkuran eta bilkura berezian lehendakariak edo batzordekideen heren batek hala eskatzen duenean.

Bilerak, oro har, Gaztediaren Etxean egingen dira.

### **13. artikulua. Dei egitea**

Idazkari-eginkizunak betetzen dituen pertsonak, Lehendakariak hala eskaturik, Mahairako deia egingen du, gutxienez bost egun baliodun lehenago, bertan adierazita bilkuraren gai-zerrenda, tokia, data eta ordua.

Bilkurak egin, deliberatu eta erabakiak hartzeari begira Gazteriaren Mahaiaren eraketa baliozkoa izan dadin, bertan egon beharko dute, edo urrutitik parte hartu, lehendakariak eta idazkariak, edo haien ordezkoek, eta organoa osatzen duten lagunetako erdiek gutxienez.

Bilduta daudenean, dela aurrez aurre dela urrutitik, Gazteriaren Mahaia osatzen duten kide guztiak edo haien ordez ari direnak kide anitzeko organotzat eratzen ahalko dira, bilkurak egin, deliberatu eta erabakiak hartzeko, aurrez deialdirik egin beharrik gabe, kide guztiak horrela erabakitzen badute.

Elkarteen ordezkariak edo haien ordezkoek bilkuraren batera bertaratzerik eduki ezean, Gazteriaren Mahaiaren Idazkaritzari eman beharko diote horren berri, bilkura noiz den eta gutxienez lau ordu lehenago.

Titularrak ordezeko izendatutakoaren esku uzten badu botoa, inguruabar horrek berariaz jasota egon beharko du Idazkaritzari zuzendutako gaztigan. Ordezkapen horrek ondorioak izanen ditu Mahaia baliozkotasunez eratzeko.



Bilkuretarako deiak bitarteko elektronikoko bidez igorriko zaizkie Gazteriaren Mahaia osatzen dutenei, eta bertan gai-zerrenda eta eztabaidarako beharrezkoa den dokumentazioa atxikiko zaizkie.

Salbu ageriko premia-kasuetan –zeinak nahitaez arrazoitu beharko baitira eta Osoko Bilkurak berak gehiengo osoz berretsi–, ohiko bilkuretan ez da jorratuko gai-zerrendan sartutakoez beste gairik.

#### **14. artikulua. Gai-zerrenda**

Gazteriaren Mahaiaren bilkura bakoitzean eztabaidatu beharreko gaiak Udalak edo kideek proposatutakoaren arabera zehaztuko dira. Azken kasu horretan, gai-zerrendan sartu nahi diren puntuen proposamenak bilkurarako deia noiz eginen den eta gutxienez zazpi egun baliadun lehenago helarazi behar zaizkio Idazkaritzari.

#### **15. artikulua. Ordain gabea**

Gazteriaren Mahaira joateak ez du ezein ordainsaririk ekarriko.

#### **16. artikulua. Gazteriaren Mahaiari babes emateko baliabideak**

Babes handiagoa eta funtzionamendu arinagoa izateko, Gazteriaren Mahaiak lantaldeak eta/edo batzorde iraunkorrak sortzen ahalko ditu.

##### **16.1. Lantaldeak**

Lantaldeak azterketa, gogoeta eta proposamen guneak dira, Mahaiak aurrez osoko bilkuran erabakitako gaiak edo alderdiak jorratzeko. Lantaldearen garapena eta aurrerapausoak aldiaren behin helaraziko zaizkio Mahaiari horiek eratzea erabakitako osoko bilkuran berriaz onetsitako prozedura eta bitartekoen bidez.

Talde horiek izan daitezke izaera puntualekoak (ezarritako maiztasun batekin) edota iraunkorrak (denboran mantentzen badira). Gaiarekiko interesa duten Gazteriaren Mahaiko kideek osatuko dituzte. Nolanahi ere, lantalde horiek Mahaikoak ez direnen aholkularitza jasotzen ahalko dute, osoko bilkurak taldea eratzean hala erabakitzen badu.

Lantalde bakoitzak erabakiko ditu beren aldizkakotasuna, dei-egitea eta egitura.

##### **16.2.- Batzorde Iraunkorra**



Gazteriaren Mahaiak Batzorde Iraunkor bat eduki dezake, Mahaia eratzeko osoko bilkuran hala erabakitzen badu eta bigarren bilkura batek hori berresten badu.

Batzorde Iraunkorraren eginkizuna Mahaiaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren lanak koordinatzea, antolatzea eta bultzatzea izanen da.

Batzorde Iraunkorra honako hauek osatuko dute: Lehendakaritza, Idazkaritza, Gazteriako teknikaria eta gainerako partaideen gehiengoaren ordezkaritza.

### **17. artikulua. Erabakiak hartzea**

Mahaiaren erabakiak bilkuran daudenen bi herenen gehiengoak hartuko ditu.

## **V. KAPITULUA ARAUDIA ETA ALDAKETA**

### **18. artikulua. Ordezko arauak**

Araudi honetan aurreikusita ez dagoen guztietan Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Erregelamendua aplikatuko da, eta kide anitzeko organoen arautzeari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legea.

### **19. artikulua. Araudi honen aldaketa**

Gazteriaren Mahaiaren funtzionamendu-araudi hau parte batean edo osorik aldatzea, eta hori desegitea Udalaren Osoko Bilkurari dagokio bakarrik, Mahaiko kideen gehiengoak egindako eskaera arrazoituaren proposamenari jarraituz.

### **LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Araudi hau Iruñeko Udalaren Partaidetzako Erregelamenduak xedatutakoaren arabera egokitzen da eta harekin bat eratu da.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Araudi honek indarra hartzearekin batera, indargabetu eginen dira Gazteriaren Mahaiaren funtzionamendu-arauak, zeinez Mahaia bera hornitu baitzen aurreko etapan.



### **AZKEN XEDAPENA**

Araudi honen argitalpena eta indarrean jartzea. Araudi hau bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 eguneko epea igarotzen denean jarriko da indarrean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan aurreikusita dagoen bezala.